



IRU CHITUAK DOÑUAN BIZI

Kantaritalde Donostiarra'ri:

¿Iru chituen ama nork jandu?
 ¿non dira galdu chituak,
 azeri zarrak alditu nonbait
 zitalki utzi ituak?
 etzuen jango kolka gaišua
 lurpeko zator ichuak,
 baizik atzapar zorrozdun lapur
 zapelditz edo miruak.

Aita Donostik zalatu du ta
 ¿agiyen jakingo aldu,
 non diran chito jayo berriyak
 edo nolaz diran galdu?;
 ¿Kantaritalde Donostiarrak
 ote ditu nonbait saldu?
 ez det uste nik; Esnaola'ri
 etzayo su-rik itzaldu,
 zergatik onek doñuz dituen
 Madrillen goiki azaldu.

.....

¿Zer berri ziran poz emalletzat
 irichi nigan lenbizi?
 iru chito ta ama gaišua
 doñuan dirala bizi.

JUAN IGNACIO URANGA

